16. KLAUSULA. Kontratua burutzea eta formalizatzea Kontratua burutuko da kontratazio-organoaren esleipenaren bidez, eta dokumentu administratiboan formalizatuko da hamabost egun balioduneko epean, esleipena jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita (2017ko SPKLren 153. artikulua). Esleipendunari egozgarri zaizkion zioak direla eta, kontratua ez bada formaldu aipatu epe barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuko % 3ko kopurua eskatuko zaio, B.E.Z. kanpo, penalidade moduan eta efektiboa egingo da, lehendabizi behin betiko bermearen kontra, jarri izan balitz, SPKLren 150. artikuluaren arabera, kontratatzeko debeku bezala kontsideratzearen kalterik gabe. Kasu horretan, eskaintzak klasifikaturik geratu diren hurrenkeraren arabera, hurrengo lizitatzailearen alde egingo da kontratuaren esleipena, aurretiazko baldintzen betetzea	**CLÁUSULA 16ª. Perfección y formalización del contrato** El contrato se perfeccionará mediante la adjudicación realizada por el órgano de contratación, formalizándose en documento administrativo dentro del plazo de quince días hábiles a contar desde el siguiente al de la notificación de la adjudicación del mismo (art. 153 LCSP 2017). Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de su consideración como causa de prohibición para contratar conforme al artículo 150 de la LCSP 2017. En tal caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación acreditativa

egiaztatzen dituen frogagirien aldez aurretiazko aurkezpenarekin, emandako epearen barruan. Kontratuaren formalizazio ezaren zioak Administrazioari egozgarri izatekotan, atzerapenak eragindako kalteengatik indemnizatu beharko zaio kontratistari. Kontratistak kontratua eskritura publikoan formalizatu ahal izatea eska dezake, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoa egiteak sortutako gastuak. 2017ko SPKLren 154.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, kontratua formalizatu dela gehienez ere hamabost eguneko epean argitaratuko da kontratuarekin batera, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean kontratua burutu ondoren.	del cumplimiento de los requisitos previos, en los plazos antes señalados. Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar. El contrato podrá formalizarse en escritura pública si así lo solicita el contratista, corriendo a su cargo los gastos derivados de su otorgamiento. De conformidad con lo previsto en el artículo 154.1 LCSP 2017, la formalización del contrato deberá publicarse, junto con el correspondiente contrato, en un plazo no superior a quince días tras el perfeccionamiento del contrato en el perfil de contratante del órgano de contratación.
17. KLAUSULA. Behin betiko bermea Kontratuen lizitazioan eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak esleipenaren zenbatekoaren % 5eko bermea eratu beharko du. Esleipenaren zenbatekoa izango da esleipenaren azken prezioa, agiri honetako aurrekontuan zenbatetsitako zenbatekoa, alegia, BEZ sartu gabe, eta bermea 2017ko SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoak erabilita eratuko da. 2017ko SPKLren 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz, bermea ez da itzuliko edo abala edo kauzio-asegurua ez da ezereztuko, harik eta bermealdia amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edota kontratistaren errurik gabe kontratua bertan behera utzi arte. Kontratu honetarako bermea urte batekoa	**CLÁUSULA 17ª. Garantía definitiva** El licitador que presente la mejor oferta en la licitación de los contratos deberá constituir una garantía del 5% del importe de adjudicación, consistiendo éste en el precio final de adjudicación por el importe estimado en el presupuesto del presente pliego, excluido el IVA, de acuerdo a cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 LCSP 2017. Según lo dispuesto en el artículo 111 LCSP 2017, la garantía no será devuelta o el aval o seguro de caución cancelado, hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato, o hasta que se declarare resolución de éste sin culpa para el contratista. El plazo de garantía establecido para este

izango da, lizitatzaileek hobetu dezaketelarik Plegu hauen 9. atalean jasotako esleipen baldintzen arabera. Bermearekin 2017ko SPKLren 110. artikuluan jasotako kontzeptuei erantzungo zaie. Kontratua amaitzen denetik zenbatzen hasi eta sei hilabeteko epean ez bada hornikuntza onartzeko egintza formala edo likidazioa egin kontratistari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik, itzuli edo ezereztu egingo da bermea, gehiago luzatu gabe, aipatutako 110. artikuluan adierazitako erantzukizunei aurre egin zaiela egiaztatu ondoren.	contrato es de un año, mejorable por los licitadores en base a la cláusula 9ª , referente a los criterios de adjudicación. Esta garantía responderá a los conceptos incluidos en el artículo 110 LCSP 2017, y transcurrido seis meses desde la fecha de terminación del contrato, sin que la recepción formal y la liquidación hubiesen tenido lugar por causas no imputables al contratista, se procederá, sin más demora, a su devolución o cancelación una vez depuradas las responsabilidades a que se refiere el citado artículo 110.
18. KLAUSULA. Behin betiko bermea itzultzea eta ezereztea Behin betiko bermea 2017ko SPKLren 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz itzuliko eta ezereztuko da, betiere kontratu eratorriei dagozkien bermealdiak amaitu badira eta haiei dagozkien betebeharrak behar bezala bete badira.	**CLÁUSULA 18ª. Devolución y cancelación de la garantía definitiva** La devolución y cancelación de la garantía definitiva se llevará a cabo en los términos establecidos en el artículo 111 LCSP 2017, siempre que hayan finalizado los períodos de garantías correspondientes a los contratos derivados y hayan cumplido satisfactoriamente las obligaciones correspondientes a aquéllos.
19. KLAUSULA. Eskaintza baxuegiak Eskaintza nabarmenki baxuegia denetz erabakitzeko, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako parametro objektiboak aplikatuko dira, aurkeztutako eskaintza baliodunak erreferentziatzat hartuta. Nolanahi ere, eskaintza anormalki baxutzat hartuko da lizitazio-prezioaren % 20tik gorakoa dena.	**CLÁUSULA 19ª. Ofertas anormalmente bajas** El carácter anormalmente bajo de las ofertas podrá apreciarse de acuerdo con los parámetros objetivos establecidos en los artículos 85 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, por referencia al conjunto de ofertas válidas que se hayan presentado. En todo caso se considerará oferta anormalmente baja la que sea mayor al 20% del precio de licitación.
20. KLAUSULA. Arriskua eta ausa	**CLÁUSULA 20ª. Riesgo y ventura**

Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da, 2017ko SPKLren 197. artikuluan xedatutakoari jarraituz.	La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista, según lo dispuesto por el artículo 197 LCSP 2017.
21. KLAUSULA. Kontratistari ordaintzea	**CLÁUSULA 21ª. Abonos al contratista**
Esleipendunak eskubidea izango du benetan exekutatu diren eta Administrazioak ondo jaso dituen obren prezioaren ordainketa jasotzeko, kontratuan ezarritako baldintzen arabera.	El adjudicatario tendrá derecho al abono del precio de las obras efectivamente ejecutadas y formalmente recibidos por la Administración con arreglo a las condiciones establecidas en el contrato.
Ordainketa faktura bidez egingo da, obra zuzendaritzak onartutako dagokion obra ziurtagiriaz lagundua joan behar duelarik. Faktura indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da, eta behar bezala osatuko du lana jasotzen duen unitateak edo, hala badagokio, kontratuaren arduradun izendatu denak.	El pago se realizará contra factura, acompañada de certificación de obra debidamente aprobada por la dirección de obra, expedida de acuerdo con la normativa vigente, debidamente conformada por la Unidad que reciba el trabajo o, en su caso, por el designado como responsable del contrato.
SPKL-ren 210.4 eta 243.1 artikuluek diotenaren kalterik gabe, Udalak Obra-ziurtagiriak eta fakturak onartu beharko ditu, obra zuzendaritzaren oniritzia jaso eta hogeita hamar eguneko epean.	Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 210.4 LCSP 2017 y en el artículo 243.1 LCSP, el Ayuntamiento deberá aprobar las certificaciones de obra y las facturas dentro de los treinta días siguientes a la ejecución efectiva de las obras que cuenten con el visto bueno de la dirección de obra.
Edonola ere, kontratistak ez badu faktura dagokion administrazio-erregistroan eta faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen arautegian ezarritakoari jarraituz aurkezteko hogeita hamar eguneko epea betetzen, interesak ez dira sortuko, Administrazioak adostasuna eman eta dagokion ordainketa egin gabe, faktura behar bezala aurkezten den egunetik zenbatzen hasi eta hogeita hamar eguneko epea igaro arte.	En todo caso, si el contratista incumpliera el plazo de treinta días para presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, el devengo de intereses no se iniciará hasta transcurridos treinta días desde la fecha de la correcta presentación de la factura, sin que la Administración haya aprobado la conformidad, si procede, y efectuado el correspondiente abono.
Ordainketa lau hilabetetik gora berandutu bada, kontratistak eten egin dezake kontratua; baina	Si la demora en el pago fuese superior a cuatro meses, el contratista podrá proceder, en su

Administrazioari jakinarazi behar dio, hilabete lehenago, etenaldi horretatik sor daitezkeen eskubideak onartuak izan daitezen 2017ko SPKLan ezarritakoaren arabera. Administrazioa sei hilabetetik gora berandutzen bada, kontratistak kontratua ezeztatzeko eskubidea ere izango du, baita horren ondorioz sortutako galeren kalte-ordainak jasotzekoa ere.	caso, a la suspensión del cumplimiento del contrato, debiendo comunicar a la Administración, con un mes de antelación, tal circunstancia, a efectos del reconocimiento de los derechos que puedan derivarse de dicha suspensión, en los términos establecidos en la LCSP 2017. Si la demora de la Administración fuese superior a seis meses, el contratista tendrá derecho, asimismo, a resolver el contrato y al resarcimiento de los perjuicios que como consecuencia de ello se le originen.
22. KLAUSULA. Kontratua aldatzea Kontratazio-organoak kontratuan aldaketak egitea erabaki dezake, behin kontratua burutu ondoren eta interes publikoko arrazoiak direla medio, 2017ko SPKLan kontratistaren ondorengotza, kontratuaren kontzesioa, prezioak berrikustea eta kontratua gauzatzeko epea luzatzea dela-eta aurreikusitako kasuak alde batera utzi gabe. Kontratu administratiboak interes publikoarekin zerikusia duten arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango dira, 2017ko SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako kasuetan eta moduan, 2017ko SPKLren 191. artikuluan araututako prozedurari jarraituz eta 2017ko SPKLren 207. artikuluan adierazitako mugekin.	**CLÁUSULA 22ª. Modificación del contrato** El órgano de contratación podrá acordar, una vez perfeccionado el contrato y por razones de interés público, modificaciones en el mismo, sin perjuicio de los supuestos previstos en la LCSP 2017 respecto a la sucesión en la persona del contratista, cesión del contrato, revisión de precios y ampliación del plazo de ejecución, los contratos administrativos solo podrán ser modificados por razones de interés público en los casos y en la forma previstos en los artículos 203 y siguientes LCSP 2017 y de acuerdo con el procedimiento regulado en el artículo 191 LCSP 2017, con las particularidades previstas en el artículo 207 LCSP 2017.
23. KLAUSULA. Kontratua etetea Udalak kontratua etetea erabaki ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik. Era berean, kontratua etengo du 2017ko SPKLren 208. artikuluan adierazitakoegoera gertatzen bada.	**CLÁUSULA 23ª. Suspensión del contrato** El Ayuntamiento podrá acordar por razones de interés público la suspensión de la ejecución del contrato. Igualmente procederá la suspensión del contrato si se diera la circunstancia señalada en el artículo 208 LCSP 2017.

Kontratua etetearen ondorioak 2017ko SPKLren 208. artikuluak eta bat datozen APKLAOko arauek arautuko dituzte.	Los efectos de la suspensión del contrato se regirán por lo dispuesto en el artículo 208 LCSP 2017, así como en los preceptos concordantes del RGLCAP.
24. KLAUSULA. Kontratua lagatzea eta azpikontratatzea Kontratu hau lagako da 2017ko SPKLren 214. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta, edonola ere, honako baldintzak bete beharko dira: a) Kontratazio-organoak aldez aurretik eta berariaz eman beharko du lagapena egiteko baimena. Baimena emango da hurrengo ataletan aurreikusitako baldintzak betetzen badira. Baimena emateari buruzko erabakia jakinarazteko bi hilabete izango dira, eta epe hori amaitzen denean administrazio-isiltasunaz emantzat hartuko da. b) Lagatzaileak kontratuaren 100eko 20 gutxienez gauzatuta izan behar du, edo kontratuaren iraupen-epearen bosten bateko aldian ustiatu behar izan du. Baldintza hau ez da ezarri ahal izango kontratista konkurtsoan dagoela egin bada lagapena, nahiz eta likidazio fasea hasita egon; edo konkurtsopean deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazten badio birfinantzatzeko akordio batera iristeko edo hitzarmen-proposamen aurreratuari atxikimenduak lortzeko negoziazioetan ari dela, konkurtso-legedian ezarritakoari jarraituz. c) Lagapen-hartzaileak administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, kontratuaren fasean eskatzekoa zaion kaudimena izan behar du; gainera, behar bezala	**CLÁUSULA 24ª. Cesión y subcontratación del contrato** La cesión del presente contrato se realizará en los términos del artículo 214 LCSP 2017, y, en todo caso, deberán respetarse los siguientes requisitos: a) Que el órgano de contratación autorice, de forma previa y expresa, la cesión. Dicha autorización se otorgará siempre que se den los requisitos previstos en las letras siguientes. El plazo para la notificación de la resolución sobre la solicitud de autorización será de dos meses, trascurrido el cual deberá entenderse otorgada por silencio administrativo. b) Que el cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato o, que haya efectuado su explotación durante al menos una quinta parte del plazo de duración del contrato. No será de aplicación este requisito si la cesión se produce encontrándose el contratista en concurso aunque se haya abierto la fase de liquidación, o ha puesto en conocimiento del juzgado competente para la declaración del concurso que ha iniciado negociaciones para alcanzar un acuerdo de re financiación, o para obtener adhesiones a una propuesta anticipada de convenio, en los términos previstos en la legislación concursal. c) Que el cesionario tenga capacidad para contratar con la Administración y la solvencia que resulte exigible en función de la fase de ejecución del contrato, debiendo estar

sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta ez du kontratatzeko debekurik izan behar.	debidamente clasificado si tal requisito ha sido exigido al cedente, y no estar incurso en una causa de prohibición de contratar.
d) Esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.	d) Que la cesión se formalice, entre el adjudicatario y el cesionario, en escritura pública.
Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.	El cesionario quedará subrogado en todos los derechos y obligaciones que corresponderían al cedente.
Kontratu honetan azpikontratazioa 2017ko SPKLren 215. artikuluak arautuko du, eta, edonola ere, baldintza hauek bete behar ditu:	La subcontratación en el presente contrato se regirá por lo dispuesto en el artículo 215 LCSP 2017, y, en todo caso, se sujetará a las siguientes condiciones:
Lizitatzaileek kontratuaren zein atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Kontratuaren atal horren zenbatekoa ere adierazi behar dute, eta kontratuaren zati hori gauzatzeko ardura eman zaien azpikontratisten izena edo enpresari-profila ere eman behar dute, gaitasun profesional edo teknikoen baldintzen arabera zehaztuta.	Los licitadores deberán indicar en la oferta la parte del contrato que tengan previsto subcontratar, señalando su importe, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que se vaya a encomendar su realización.
Edonola ere, kontratistak, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenera jota ere, kontratua gauzatzen hasten denean, idatziz jakinarazi behar dio kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak zehaztuko ditu. Era berean, azpikontratistak kontratua gauzatzeko gaitasuna duela behar bezala justifikatu beharko du, bere elementu teknikoei, giza baliabideei eta esperientziari erreferentzia eginez, 2017ko SPKLren 71. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratatzeko debekurik ez duela ere egiaztatu beharko du.	En todo caso, el contratista deberá comunicar por escrito, tras la adjudicación del contrato y, a más tardar, cuando inicie la ejecución de este, al órgano de contratación la intención de celebrar los subcontratos, señalando la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad, datos de contacto y representante o representantes legales del subcontratista, y justificando suficientemente la aptitud de este para ejecutarla por referencia a los elementos técnicos y humanos de que dispone y a su experiencia, y acreditando que el mismo no se encuentra incurso en prohibición de contratar de acuerdo con el artículo 71 LCSP 2017.

Kontratista nagusiak idatziz emango dio kontratazio-organoari kontratu nagusia betetzen den bitartean informazio horretan izaten den edozein aldaketaren eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztiaren berri.	El contratista principal deberá notificar por escrito al órgano de contratación cualquier modificación que sufra esta información durante la ejecución del contrato principal, y toda la información necesaria sobre los nuevos subcontratistas.
Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu-atala egiteko sailkapen egokia badu, horren berri ematea nahikoa izango da haren gaitasuna justifikatzeko.	En el caso que el subcontratista tuviera la clasificación adecuada para realizar la parte del contrato objeto de la subcontratación, la comunicación de esta circunstancia será suficiente para acreditar la aptitud del mismo.
Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.	La acreditación de la aptitud del subcontratista podrá realizarse inmediatamente después de la celebración del subcontrato si esta es necesaria para atender a una situación de emergencia o que exija la adopción de medidas urgentes y así se justifica suficientemente.
Lizitatzaileak bere eskaintzan jakinarazi beharko ditu azpikontratatu nahi duen kontratuaren zatiari buruzko inguruabarrak, eta eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak –eskaintzan izenez adierazitako enpresariekin egin ordez beste batzuekin egin direlako, edo eskaintzan adierazitako prestazioaren atalari buruzkoak izan ordez beste atal batzuei buruzkoak direlako– ezin izango dira egin harik eta jakinarazpena egiten denetik eta 2017ko SPKLren 215. artikuluan adierazitako egiaztagiriak aurkezten direnetik hogei egun igarotzen diren arte, nola eta azpikontratu horiek ez diren aldez aurretik eta berariaz baimendu, eta, betiere, Administrazioak ez badu, epe horren barruan, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontratistak, eskaintzan, lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira.	El licitador deberá comunicar en su oferta las circunstancias referidas a la posible parte del contrato que pretenden subcontratar, de forma que los subcontratos que no se ajusten a lo indicado en la oferta, por celebrarse con empresarios distintos de los indicados nominativamente en la misma o por referirse a partes de la prestación diferentes a las señaladas en ella, no podrán celebrarse hasta que transcurran veinte días desde que se hubiese cursado la notificación y aportado las justificaciones a que se refiere el artículo 215 LCSP 2017, salvo que con anterioridad hubiesen sido autorizados expresamente, siempre que la Administración no hubiese notificado dentro de este plazo su oposición a los mismos. Este régimen será igualmente aplicable si los subcontratistas hubiesen sido identificados en la oferta mediante la descripción de su perfil profesional.

Hogei eguneko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere kontratistaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.	Bajo la responsabilidad del contratista, los subcontratos podrán concluirse sin necesidad de dejar transcurrir el plazo de veinte días si su celebración es necesaria para atender a una situación de emergencia o que exija la adopción de medidas urgentes y así se justifica suficientemente.
Azpikontratistek kontratista nagusiaren aldera baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, administrazioarekiko erantzukizun osoa, kontratua administrazio-klausula zehatzen agiriari edo deskripzio-agiriari eta kontratuko baldintzei estu-estu lotuta gauzatzeko, 2017ko SPKLren 201. artikuluan ezarritako ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak barne direla.	Los subcontratistas quedarán obligados solo ante el contratista principal que asumirá, por tanto, la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Administración, con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares o documento descriptivo, y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral a que se refiere el artículo 201 LCSP 2017.
Administrazioak egin diren azpikontratuen berri izateak –2017ko SPKLren 215. artikuluan adierazitako komunikazioak direla bide– edo 2017ko SPKLren 215. artikuluan ezarritako kasuan emandako baimenak ez dute eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun esklusiboan.	El conocimiento que tenga la Administración de los subcontratos celebrados en virtud de las comunicaciones a que se refieren el artículo 215 LCSP 2017, o la autorización que otorgue en el supuesto previsto en el artículo 215 LCSP 2017, no alterarán la responsabilidad exclusiva del contratista principal.
Kontratistak ezingo du inolaz ere kontratuaren zati bat gauzatzeko hitzarmenik egin antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo 71. artikuluan jasotako egoeretako batean dauden pertsonekin.	En ningún caso podrá concertarse por el contratista la ejecución parcial del contrato con personas inhabilitadas para contratar de acuerdo con el ordenamiento jurídico o comprendidas en alguno de los supuestos del artículo 71.
Kontratistak azpikontratazioaren berri eman beharko die langileen ordezkariei, lan-legeriaren arabera.	El contratista deberá informar a los representantes de los trabajadores de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.
2017ko SPKLren 51. xedapen gehigarrian ezarritakoa alde batera utzi gabe, azpikontratistek ez dute Administrazio	Sin perjuicio de lo establecido en la Disposición Adicional 51 LCSP 2017, los subcontratistas no tendrán acción directa frente

kontratatzailearen aurrean erantzukizun zuzenik izango kontratu nagusia eta azpikontratuak gauzatzea dela-eta kontratistak haiekin hartutako betebeharrengatik. Kontratistak azpikontrataziorako baldintzak urratzen baditu, azpikontratuaren zenbatekoaren %50eko penalitatea ezarriko zaio.	a la Administración contratante por las obligaciones contraídas con ellos por el contratista como consecuencia de la ejecución del contrato principal y de los subcontratos. En el caso de incumplimiento por parte del contratista de las condiciones de subcontratación, se le aplicará una penalidad del 50% del importe del subcontrato.
25. KLAUSULA. Kontratistaren eskubideak eta betebeharrak Kontratua gauzatuko da kontratuaren klausulei estu-estu lotuta, eta kontratuaren interpretazioa eginez Udalak kontratistari emandako jarraibideekin bat etorriz. Obrak jasotzean egoera egokian ez badaude, harrera-aktan adieraziko da eta kontratistari jarraibide zehatzak emango zaizkio ikusitako akatsak konpontzeko. Kontratistaren kontura izango dira gastuak eta zergak, iragarkiak –Aldizkari Ofizialetakoak, egunkari ofizialetakoak edo edozein hedabidetakoak–, kontratua formalizatzeko gastuak eskritura publikoa egitea eskatzen den kasuetan, bai eta hornituko diren ondasunak behar bezala gauzatzeko eta entregatzeko behar diren lizentziak eta baimenak ere. Era berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeko egingo dituen gastu guztiak: orokorrak, finantzarioak, aseguruenak, materialenak eta instalazioenak, bere kargura dauden langileen ordainsariak, egiaztapenak eta entseguak egiteak eragindakoak, tasak, bai eta era guztietako zergak, BEZa, eta jarduera gauzatzeagatik	**CLÁUSULA 25ª. Derechos y obligaciones del contratista** El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas del mismo y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diera el Ayuntamiento al contratista. Si las obras no se hallan en estado de ser recibidas se hará constar así en el acta de recepción y se darán las instrucciones precisas al contratista para que subsane los defectos observados. Por tanto, son de cuenta del contratista los gastos e impuestos, anuncios, ya sea en Boletines, Diarios oficiales o en cualquier medio de comunicación, los de formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública así como de cuantas licencias, autorizaciones y permisos procedan en orden a ejecutar y entregar correctamente los bienes objeto del suministro. Asimismo vendrá obligado a satisfacer todos los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento del contrato, como son los generales, financieros, de seguros, materiales, instalaciones, honorarios del personal a su cargo, de comprobación y ensayo, tasas y toda clase de tributos, el IVA, el impuesto que por la realización de la actividad pudiera

dagozkion zergak ere; halaber, bere gain hartuko ditu kontratu indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzeagatik ondoriozta daitezkeen betebehar guztiak.	corresponder y cualesquiera otros que pudieran derivarse de la ejecución del contrato durante la vigencia del mismo.
Zenbait kontzepturi ezarritako era guztietako zergak eragin guztietarako lizitatzaileek aurkezten dituzten eskaintzetan nahiz esleipen-proposamenetan sartuta daudela ulertuko da.	Tanto en las ofertas que formulen los licitadores como en las propuestas de adjudicación, se entenderán comprendidos, a todos los efectos, los tributos de cualquier índole que graven los diversos conceptos.
Alabaina, eskaintza ekonomikoan aparteko kontu-sail gisa adieraziko da balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) zenbatekoa.	Sin embargo, en todo caso, en la oferta económica, se indicará como partida independiente el importe del Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA).
Kontratu honek bete beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.	El presente contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentaria y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo.
Lizitatzaileek, esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran Gipuzkoako eraikuntzako Hitzarmen kolektiboa aplikatu beharko dute.	Los licitadores en el caso de ser adjudicatarios deberán aplicar el Convenio Colectivo de la construcción de Gipuzkoa.
Halaber, eskatzen den informazio guztia ematera behartuta egongo dira, behin kontratua esleitu eta gero, langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz.	Asimismo, estarán obligados a facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, se apliquen efectivamente a esos trabajadores y trabajadoras.
Esleipendunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan. Klausula honetan ezarritako betebeharrak kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa	El adjudicatario deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel. Las obligaciones impuestas en esta claúsula tienen la consideración de condición especial

hartuko dira, eta ezbetetzeak kontratua suntsitzea ekar dezake.	de ejecución del contrato, y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del mismo.
Hizkuntz irizpideak:	Criterios lingüísticos:
1.- Enpresa esleipendunak administrazioaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan.	1.- La empresa adjudicataria actuará de conformidad con las normas lingüísticas que de hecho se apliquen a la administración contratante, en todos los cometidos objeto del contrato.
2 .- Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.	2.- Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante un pictograma, acompañado de un mensaje explicativo en euskera.
Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.	Si no resulta posible hacerlo mediante un pictograma, se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles.
Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.	Si los dos casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad de la administración.
3.- Administrazio kontratatzailearekin euskara erabiliko da oro har kontratuaren ondorioz sortzen diren harremanetan:	3.- Normalmente se utilizará el euskera con la administración contratante, en todas aquellas relaciones que se den como consecuencia del contrato:
a) Ahozko harremana euskaraz izango da. Kontratatutako enpresan euskara maila egokia duen pertsonarik ez badago, enpresak bitartekoak edo hizkuntza gaitasun nahikoa duten pertsona egokiak jarri beharko ditu administrazioarekin harremanak euskaraz izateko.	a) La comunicación oral se realizará en euskera. En caso de que no exista en la empresa persona alguna con buen conocimiento de euskera, la empresa deberá disponer de inmediato los medios necesarios o bien el personal con suficiente capacidad lingüística en euskera para poder comunicarse en dicha lengua con la administración.
b) Idatziak euskaraz eta gazteleraz idatziko dira, bi alderdiek euskaraz izatea aukeratzen badute, euskaraz bakarrik.	b) Los escritos se redactarán en euskera y castellano, a menos que las dos partes hayan elegido el euskera.

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

26. KLAUSULA. Kontratua behar bezala ez betetzea edo atzerapena kontratua betetzean. 1.- Behar bezala ez betetzea: Hauxe izango da kontratua behar bezala ez betetzea: a) Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik administrazio-agirian ezarritako baldintzak ez betetzea, kontratua bertan behera uzteko arrazoiak ez direnean. a) atalean zehaztutako egintzak, gehienez kontratuaren prezioaren %10-eko penalitateen ezarrera eragingo du, B.E.Z. kanpo. Ez betetzea errepikatzen bada, kontuan izango da larritasuna baloratzeko. 2.- Atzerapena kontratua betetzean: Kasu hauetan honako zigorra ezarriko da: atzeratzen den egun bakoitzeko kontratuaren prezioaren 1.000 euroko 0,60 euro, BEZ sartu gabe. Eskabidearen zati bat entregatzean atzeratuz gero, zigorra eskabidearen balioaren araberakoa izango da, BEZ sartu gabe. Zigorrak ezarri ahal izango dira kontratua jaso aurretik edo ondoren, eta bigarren kasuan atzeratutako egun-kopurua izango da kontratuaren jatorrizko epearen (gehi Udalak onartutako luzapenaren) eta kontratua gauzatzeko benetako epearen arteko diferentzia, kontratuaren azken eguna harrera-aktakoa izango dela kontuan hartuta. Kontratistak, kontratua gauzatzeko epearen barruan, kontratua gauzatzeko epe hori luzatzea	**CLÁUSULA 26ª . Cumplimiento defectuoso y demora en la ejecución del contrato.** 1.- Cumplimiento defectuoso : Tendrá la consideración de cumplimiento defectuoso del contrato: a) El incumplimiento, por causas imputables al contratista, de los requisitos establecidos en el pliego administrativo, que no supongan causa de resolución del contrato. Las conducta enumerada en el apartado a) dará lugar a la imposición de unas penalidades de un máximo del 10% del precio del contrato, I.V.A. excluido. La reiteración en el incumplimiento podrá tenerse en cuenta para valorar la gravedad. 2.- Demora en la ejecución del contrato: En estos casos , se impondrá la siguiente penalidad: una penalidad diaria en la proporción de 0,60 euros/día por cada 1.000 euros del precio del contrato, I.V.A. excluido. Estas penalidades se podrán aplicar con anterioridad a la recepción del contrato o una vez recibido éste, determinándose en este último caso los días de retraso como la diferencia entre el plazo original del contrato más las prórrogas aprobadas por el Ayuntamiento y el plazo real de ejecución, tomando como fecha final del contrato la del acta de recepción. El contratista podrá solicitar, dentro del plazo de ejecución del contrato, una prórroga del mismo cuando considere que las causas de retraso en la ejecución que no le son

eskatu ahal izango du baldin eta bere ustez atzerapenaren arrazoiak ezin bazaizkio berari egotzi eta Administrazioaren ekintzen edo omisioen edo ezinbesteko arrazoiren baten ondorio bada. Kontratistak ez badu kontratua betetzeko epea luzatzeko eskatzen, egokituko litzaiokeen eskubide horri uko egin diola ulertuko da.	imputables, por tener su origen en acciones u omisiones de la Administración o causas de fuerza mayor. Si el contratista no solicitase la prórroga del plazo de ejecución del contrato, se entenderá que renuncia al derecho que hubiera podido corresponderle.
27. KLAUSULA. Kontratua ezeztatzea Kontratua ezeztatzeko arrazoiak izango dira 2017ko SPKLren 211. artikuluan jasotakoak, bai eta honakoak ere (2017ko SPKLren 245. art.): a) Zuinketa egiaztapena egiteko justifikaziorik gabeko atzerapena. b) Obrak hasteko epea lau hilabete baino gehiago atzeratzea. c) Obrak etetea zortzi hilabete baino gehiagoko epean, Udalari egozgarri zaionean. d) Uko egitea.	**CLÁUSULA 27ª. Resolución del contrato** Son causas de resolución del contrato las recogidas en el artículo 211 LCSP 2017, así como las siguientes (art. 245 LCSP 2017): a) La demora injustificada en la comprobación del replanteo. b) La suspensión de la iniciación de las obras por un plazo superior a cuatro meses. c) La suspensión de las obras por plazo superior a ocho meses por parte del Ayuntamiento. d) El desistimiento.
28. KLAUSULA. Jurisdikzioa Kontratua garatzen den bitartean sortzen diren zalantzak kontratazio-organoak argituko ditu. Kontratazio-organoak hartutako erabakiek amaitu egingo dute administrazio-bidea, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioaren aurrean inpugnatu ahal izango dira.	**CLÁUSULA 28ª. Jurisdicción** Las cuestiones que puedan plantearse durante el desarrollo del contrato serán resueltas por el órgano de contratación. Los acuerdos adoptados para su resolución pondrán fin a la vía administrativa, y podrán ser impugnados ante la Jurisdicción contencioso-administrativa.

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

EGINBIDEA: Idazkari naizen honek luzatzen dut, Administrazio Klausula Partikularren aldatutako Agiri hau 2024ko ekainaren 26an Alkatetza Ebazpenaren bidez onartu zela jasoarazteko.	DILIGENCIA.- La extiendo yo, el Secretario, para hacer constar que el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares modificado fue aprobado por Resolución de Alcaldía de fecha 26 de junio de 2024.

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

I. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

KONTRATUAREN IZENA: UDAL IGERILEKUAREN ALDAGELAK ETA FATXADA BERRITZEKO OBRA.

ENPRESA

IZENA	IFK
HELBIDEA	

TELEFONOA	HELBIDE ELEKTRONIKOA

ORDEZKARIA

IZENA	NAN

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU

Betetzen dituela 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140 artikuluaren 1. atalean ezarritako aldez aurreko baldintza guztiak obra-kontratuaren esleipenduna izateko. Zehazki hauek:

- Nortasun juridikoa eta, hala badagokio, ordezkaritza dituela.
- Hala badagokio, enpresa behar bezala sailkatuta dagoela edo kaudimen ekonomikoari, finantzarioari eta teknikoari edo profesionalari dagozkien baldintzak betetzen dituela.
- Ez duela azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen, 71. artikuluan kontratatzeko jasotako debekurik, eta indarrean dauden legeek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzean egunean dagoela.

Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegiren eskumenaren mende jartzen dela, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, eta lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko eskumen-foruari uko eginda, hala badagokio. (Atzerriko enpresen kasuan bakarrik):
Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honakoa da:

Lizitatzailearen sinadura

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

I. MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE

DENOMINACIÓN DEL CONTRATO: OBRAS DE RENOVACION DE LOS VESTUARIOS Y LA FACHADA DE LA PISCINA MUNICIPAL

EMPRESA

DENOMINACIÓN	CIF
DOMICILIO	

TELÉFONO	DIRECCIÓN ELECTRÓNICA

REPRESENTANTE

NOMBRE	DNI

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD

Que cumple con todos los requisitos previos exigidos por el apartado primero del artículo 140 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/Uem de 26 de febrero de 2014 para ser adjudicatario del contrato de obras, en concreto:

- Que posee personalidad jurídica y, en su caso, representación.
- Que, en su caso, está debidamente clasificada la empresa o que cuenta con los requisitos de solvencia económica, financiera y técnica o profesional.
- Que no está incurso en una prohibición para contratar de las recogidas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y se halla al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

Que se somete a la Jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitador. (Sólo en caso de empresas extranjeras).

Que la dirección de correo electrónico en que efectuar las notificaciones es el siguiente:

Firma del licitador

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

_____ jaun/andreak, jakinarazpenetarako helbide elektronikoa ____ eta NANa ____ duenak, Olaberriko Udalaren kontratatzailearen profilean ____ egunean iragarritako eta prozedura ireki sinplifikatuaren bidez egingo den "**UDAL IGERILEKUAREN ALDAGELAK ETA FATXADA BERRITZEKO OBRA**" kontratu administratiboan interesa duen eta NAN ____ duen ____ (r)en izenean (edo bere izenean), adierazten dut ezagutzen dudala kontratu hau arautzen duen Baldintza Administratiboen Agiria, eta osorik ontzat ematen dudala. Eta lizitazioan parte hartuko dut eta kontratuaren xedea gauzatuko dut _____ €an, eta balio erantsiaren gaineko zerga _____ € izango lirateke eta_____ urteko berme epearekin

Zenbateko horretan sartuta daude aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, bai eta kontratua arautzen duen Baldintza Administratibo Zehatzen Agirian jasotako gastu guztiak ere.

Olaberriko Udalarekin kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen ditut, eta, bereziki, hitzematen dut prestazioa behar bezala gauzatzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material atxikiko dizkiodala kontratuari.

____ (e)n, ____ (e)ko ____ ren ____(e)an.

Lizitatzailearen sinadura.»

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

ANEXO II. MODELO DE PROPOSICIÓN ECONÓMICA

D./Dª _____, con domicilio a efectos de notificaciones en la dirección de correo electrónico _____, con DNI nº _____, en representación de D./Dª_____ (o en nombre propio), con DNI nº _____, interesado en por procedimiento abierto simplificado del contrato administrativo de "**OBRAS DE RENOVACION DE LOS VESTUARIOS Y LA FACHADA DE LA PISCINA MUNICIPAL"**, anunciado en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Olaberria, de fecha ____ hago constar que conozco el pliego de cláusulas administrativas que sirve de base al contrato y lo acepto íntegramente, tomando parte de la licitación y comprometiéndome a llevar a cabo el objeto del contrato por el importe de _____ € y _____ €, correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido y con un plazo de garantía de_____ años.

Dicho importe incluye además todos los tributos, tasas y cánones de cualquier índole que sean de aplicación, así como todos los gastos contemplados en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que rige el contrato.

Que reúne todas y cada una de las condiciones exigidas para contratar con el Ayuntamiento de Olaberria y en particular efectúa el compromiso de adscribir a la ejecución del contrato los medios personales y materiales suficientes para llevarla a cabo adecuadamente la prestación.

En _____, a ____ de ____ de ____.

Firma del licitador.»

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

III. ERANSKINA. FINANTZA ERAKUNDEEN AITORPEN EREDUA

____ erakundeak *(finantza-erakundearen izena)* IFZ ____ eta helbidea ____ duenak, eta bere izenean, ____ (e)k *(ahalordedunen izen-abizenak)*, egintza honetan zehaztutako eginbeharrak betetzeko behar besteko ahalmena dutenek

JAKINARAZTEN DUTE

____ (*pertsona fisikoaren izen-abizenak edo pertsona juridikoaren izen soziala)*, IFZ ____ eta helbidea ____ ____ duena, finantza-erakunde honen bezeroa dela.

Erakunde honetan dauden aurrekarien arabera, aipatutako lizitatzaileak 210.075,21 euroko edo gehiagoko urteko negozio-bolumena du, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldien artean onena denari dagokionez, IItrenarekin kontratatzeko ondorioetarako. Olaberriako Udala, **UDAL IGERILEKUAREN ALDAGELAK ETA FATXADA BERRITZEKO OBRA** egiteko.

Eta horrela jasota gera dadin eta behar den lekuan dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egin dut ____ (e)n, ____ (e)ko ____ren ____(e)an.

(Finantza-erakundearen sinadura eta zigilua).»

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

ANEXO III. MODELO DE DECLARACIÓN DE ENTIDADES FINANCIERAS

La entidad _____ *(razón social de la entidad financiera)* con NIF _____, domiciliada en _____ y en su nombre _____ *(nombre y apellidos de los apoderados)* con poderes suficientes para obligarse en este acto

INFORMAN

Que _____ (*nombre y apellidos de la persona física o denominación social de la persona jurídica)* con NIF _____, domiciliada en _____ de _____, es cliente de esta entidad financiera.

Que según los antecedentes obrantes en esta entidad, el mencionado licitador tiene un volumen anual de negocios, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles, por importe igual o superior a 210.075,21 €, a los efectos de la contratación con el Iltre. Ayuntamiento de Olaberria la ejecución de las **OBRAS DE RENOVACION DE LOS VESTUARIOS Y LA FACHADA DE LA PISCINA MUNICIPAL.**

Y para que así conste y surta los efectos oportunos ante donde sea procedente, expido la presente en _____,a ____ de _____ de ____.

(Firma y sello de la entidad financiera).»